



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**ANA ALBISTUR BEUNZAK,
ZARAITZUKO BATZORDE
NAGUSIKO ORDEZKO
IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2021eko ekainaren 4an egindako ohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

Ezkarozen, Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan, 2021eko ekainaren 4an, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Pedro Mascaray Navarro jauna batzordeburu dela.

Honako batzordekide hauek bertaratu dira:

ALDAGAINA: Ana Sagardoi.

ERRARTEA: Gonzalo Celay eta Andoni Senberoiz.

ATABEA: Pedro Mascaray, Pio Sarries eta Elena Ayerra.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1.- 2018KO IRAILAREN 4KO
OSOKO BILKURAN
ERREMENDIAKO FINKAREN
LAGAPENARI BURUZ
HARTUTAKO ERABAKIA
ALDATZEA**

Zaraitzuko Batzorde Nagusiak, 2018ko irailaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Erremendiako finka Nafarroako Gobernuari doan lagatzea, hogeitaurterako, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 128. artikuluan

**ANA ALBISTUR BEUNZA,
SECRETARIA SUPLENTE DE LA
JUNTA GENERAL DEL VALLE DE
SALAZAR, CERTIFICO:**

Que de la sesión **ORDINARIA** celebrada con fecha cuatro de junio de 2021, se ha extendido el acta que se transcribe a continuación:

En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las diecisiete horas del día cuatro de junio de 2021, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión Ordinaria bajo la Presidencia de D. Pedro Mascaray y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

POR ALDAGAÑA: Sra. Ana Sagardoi.

POR ERRARTEA: Sres.: Gonzalo Celay, Andoni Senberoiz.

POR ATABEA: Sr/a Pedro Mascaray, Pío Sarries y Sra. Elena Ayerra.

Abierta la sesión por el Sr Presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- MODIFICACIÓN DEL
ACUERDO DE SESIÓN DEL 4 DE
SEPTIEMBRE DE 2018 SOBRE
CESIÓN FINCA REMENDÍA**

El Pleno de la Junta General del Valle de Salazar con fecha 4 de septiembre de 2018, adoptó acuerdo por



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

xedatutakoarekin bat. Bi urte geroago, Batzordeari urriaren 20ko 539/2020 Ebazpenaren berri eman zitzaion, Aurrekontuen zuzendari nagusiarena. Horren bidez Nafarroako Gobernuak lagapena onetsi eta INTIARI lagatako eraikinak eta lursailak atxikitzea erabaki zuen. Horren ondoren, Batzordeak zenbait erabaki hartu zituen lursail eta eraikinei buruz, egindako lagapenaren aldaketa ekarriko zuketena, eta, beraz, ezin ziren baliozkotzat jo, behin ondasunak Nafarroako Gobernuaren ondareari atxiki ondoren.

Aurrekoa gorabehera, Batzordeak harremanak izan ditu bai Aurrekontu, Ondare eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin, bai Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarekin, lagapenaren gaiari buruz hitz egiteko, eta zehazki, lagatako eraikin eta lursailen zati baten xedeari eta itzulketari buruz. Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat jaso da, Batzordearen intereseko eraikinak eta lursailak itzultzearen aldekoa. Era berean, gai hori Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiarekin jorratu da, izapidetu beharreko eskaerari segurtasun juridikoa emateko.

Batzordeak Erremendian kokatutako hiru eraikinetan egokitzapen-jarduketak egiteko interesa du; eraikin horiei atxikita beharko luke lursailen zati batek, INTIAk erabiltzen dituenekiko sarbide independentea bermatzeko.

el que se cedía a título gratuito a Gobierno de Navarra la finca Remendía, en virtud de lo dispuesto en el Artículo 128 de la LF 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, por plazo de veinte años. Posteriormente, dos años más tarde, se comunicó a la Junta la Resolución 539/2020, de 20 de octubre, de la Directora General de Presupuestos, por la que Gobierno de Navarra acepta la cesión y acuerda adscribir los edificios y terrenos cedidos a INTIA. Tras esta aceptación la Junta adoptó una serie de acuerdos relativos a los terrenos y edificios, que supondrían una modificación de la cesión realizada y que, por lo tanto, no pueden ser considerados válidos una vez los bienes ya han sido adscritos al patrimonio de Gobierno de Navarra.

No obstante lo anterior, esta Junta ha tenido diferentes contactos tanto con la Dirección General de Presupuestos, Patrimonio y Política Económica como con la Dirección General del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente de Gobierno de Navarra, para tratar sobre el tema de la cesión, y en concreto sobre el posible destino y reversión de una parte de los edificios y terrenos cedidos, constando un informe de la Dirección General de Desarrollo Rural, favorable a la reversión de los edificios y terrenos por los que la Junta de Salazar tiene interés. Asimismo, este tema se ha tratado con la Dirección General de Administración Local al objeto de dar seguridad jurídica a la solicitud a tramitar.

En este momento la Junta de Salazar



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Horren helburua da ibarra garatzen eta enplegua sortzen lagundu dezaketen ekimenak sustatzea. Horri begira, finka dinamizatzeke eta berraktibatzeke memoria balioetsi bat egin zen, eta horren arabera, jarduketak INTIAk egiten dituen lanetan inolako interferentziarik gabe burutu litezke, behin higiezinak berreskuratu eta dagokion proiektua idatziz gero.

Gaia eztabaidatu ondoren, Batzordeak Mascaray, Ayerra, Sarries eta Celayren aldeko botoekin eta Senberoiz eta Sagardoiren aurkako botoekin, gehiengo osoz erabaki du:

1.- 2018ko irailaren 4an egindako osoko bilkuran onetsitako Erremendiako finkaren lagapenaren baldintzak aldatzea, lagapenaren xede den azaleratik honakoak kentzeko: 1. poligonoko 14. partzela, 1. poligonoko 12. partzelako K azpipartzela eta 12. partzelako J azpipartzelako 3.473,91 m² (partzela horretako I. azpierzemuko 1., 3., 6., 7. eta 8. hiri-unitateak, Ondarearen Zerbitzuaren planoaren arabera. I. Eranskina).

2.- Aurrekontu, Ondare eta Politika Ekonomikoko zuzendari nagusiaren urriaren 20ko 539/2020 Ebazpena aldatzeko eskatzea, Erremendiako finka doan erabiltzeko lagapena onetsi zuena, lagatako azaleratik lehen aipatutako azalera kentzeko eta lagatako azalera osoaren planoaren Ondare Zerbitzuak egindako planoarekin ordezteko (II.

mantiene su interés en realizar actuaciones de adecuación en tres de los edificios radicados en Remendía, a los que deberían estar afectos una parte de los terrenos que garanticen un acceso independiente respecto a los que utiliza INTIA, para promover posteriormente iniciativas que contribuyan al desarrollo del valle y a la generación de empleo. Con tal objetivo ya se realizó una Memoria valorada para la dinamización y reactivación de la finca, que podría desarrollarse sin ninguna interferencia sobre los trabajos que, a su vez, desarrolla INTIA en la finca una vez que se disponga de los inmuebles y se redacte el proyecto correspondiente.

Debatido el tema, el Pleno de la Junta aprueba por mayoría absoluta, con los votos a favor de los Srs./Sras.: Mascaray, Ayerra, Sarries y Celay; y con los votos en contra del Sr. Senberoiz y la Sra. Sagardoi; por los motivos expuestos en el párrafo anterior:

1.- Modificar los términos de la cesión de la finca Remendía acordada en la sesión celebrada el 04/09/2018, en el sentido de eliminar de la superficie objeto de cesión la Parcela 14 del polígono 1, la Sub-parcela K de la Parcela 12 del polígono 1 y 3.473,91 m² de la Sub-parcela J de la Parcela 12 que contienen las unidades urbanas 1, 3, 6, 7 y 8 de la sub-área 1 de dicha Parcela, conforme al plano elaborado por el Servicio de Patrimonio que se adjunta como Anexo I.

2.- Solicitar la modificación de la Resolución 539/2020, de 20 de octubre, de la Directora General de Presupuestos,



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Eranskin gisa erantsi da).

3.- Erabaki hau igortzea Aurrekontu, Ondare eta Ekonomia Politikako Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Gobernu Landa Garapen eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, behar diren ondorioetarako.

4.- Batzordeburuari eskumena ematea, Nafarroako Gobernuaren ondasunak Zaraitzuko Batzorde Nagusiari lagatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sina ditzan.

2.- ERREMENDIAKO FINKA BIZIBERRITZEA ETA PROIEKTUAREN LIZITAZIOA ONESTEIA, EGOKIA BADA

2021eko maiatzaren 27ko egindako osoko bilkuran, Erremendiako finka biziberritzeko proiektuaren onespenerari buruzko bozketa baliogabetzat jo egin zen, erabakiak gehiengo osoa behar zuelako.

Berriz ere bozkatu egin da:

Alde: Mascaray, Ayerra, Celay eta Sarries.

Aurka: Senberoz eta Sagardoi.

Horrenbestez, gehiengo osoz onetsi da Erremendiako finka biziberritzeko obra egitea, honako baldintza hauen pean:

1- Batzordeari itzultzea Nafarroako Gobernuari eskatutako finkaren zatia.

2- "Pirinioetako lurralde-eremuko toki-erakundeentzako dirulaguntzak,

Patrimonio y Política Económica, por la que se acepta la cesión de uso, a título gratuito, de la finca Remendía, en el sentido de eliminar de la superficie objeto de cesión las superficies referidas anteriormente, así como de sustituir el Plano de la superficie total cedida adjunto a la misma por el Plano elaborado por el Servicio de Patrimonio que se adjunta como Anexo II.

3.- Trasladar el presente acuerdo a la Dirección General de Presupuestos, Patrimonio y Política Económica, así como a la Dirección General de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra la presente solicitud, a los efectos oportunos.

4.- Facultar al Presidente de la Junta para que, en caso favorable, firme cuantos documentos sean necesarios para llevar a efecto la cesión de los bienes de Gobierno de Navarra a la Junta General del Valle de Salazar.

2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA REVITALIZACIÓN DE LA FINCA DE REMENDÍA Y DE LA LICITACIÓN DEL PROYECTO

En la sesión anterior –27 de mayo de 2021– se declara nula la votación sobre la aprobación del proyecto de revitalización de Remendia, al tratarse de un acuerdo para el cual se necesita mayoría absoluta. Se somete el tema a una nueva votación.

Votan a favor, Srs./Sra: Mascaray, Ayerra, Celay y Sarries.

Votan en contra el Sr. Y la Sra.: Senberoz y Sagardoi.



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

2021-2013 aldian Lurralde Garapen Iraunkorreko proiektuetan inbertsioak egiteko" izeneko dirulaguntza jasotzea.

Proiektua idazteko lizitazioa bozkatu egin da:

Alde: Mascaray, Ayerra, Celay eta Sarries.

Aurka: Senberoiz eta Sagardoi.

Sagardoik aktan jasota geratzea nahi du Erremendian ez dagoela ekintzaitzarako planteamendurik, eta ondokoa gaineratu du: *"Ongi ez dabilzan bi negozio ditugu jada. Ez da egokia herritarrek horrelako proiektu bati buruz iritzirik ez ematea. Gainera, aurretik egin zen prozesu parte-hartzailean ez zen islatu proiektu hau. Bestalde, kontu bat da proiektua egitea, eta beste bat etorkizunean mantentzea, hurrengo legealdietan Batzordea osatzen dutenei egokituko zaiena"*.

3.- GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, BILKURAKO ERABAKIA BALIOGABETZEKO

Ikusi da Nafarroako Administrazio Auzitegiak bidalitako jakinarazpena, S. Iriarte Eseverrik 2021eko urtarrilaren 20an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurka jarri duen 21-0030 zenbakiko gora jotzeko errekurtsuari buruzko. Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.- Errekurtsoa jakinarazitzat jotzea, basozainak kontratatzeari buruzko erabakia

Se aprueba por mayoría absoluta la realización de la obra de Revitalización de la finca de Remendia, sujeto a las siguientes condiciones:

1-La reversión de la parte solicitada de la finca a la Junta por parte del Gobierno de Navarra,

2-La concesión de la subvención de la convocatoria "Subvenciones a entidades locales inscritas en el ámbito territorial del Pirineo para Inversiones en proyectos de Desarrollo Territorial Sostenible durante los años 2021, 2022, y 2023".

Se somete a votación la licitación de la redacción del proyecto.

Votan a favor, Srs./Sra: Mascaray, Ayerra, Celay y Sarries.

Votan en contra el Sr. Y la Sra.: Senberoiz y Sagardoi.

La Sra. Sagardoi hace constar en acta que no hay un planteamiento de emprendimiento en Remendia, *"tenemos ya dos negocios que no funcionan bien. Que la población no tenga opinión en un proyecto de tal envergadura no es adecuado. Por otro lado, una cosa es hacer el proyecto y otra mantenerlo a posterior, que les va a tocar también a las siguientes Juntas. En el proceso participativo que se hizo no se reflejó la idea que se tiene actualmente del proyecto a hacer en Remendia"*.

3.- RECURSO DE ALZADA AL T.A.N. CONTRA REVOCACIÓN



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

baliogabetzeko eskatzen duena.

Bigarrena.- Basozainei jakinaraztea errekurtsua jarriko dela, eta haiei dei egitea Nafarroako Administrazio Auzitegian ager daitezen aipatutako errekurtsuan, hamar egun baliouduneko epean, horren aurka egin nahi badute.

Hirugarrena.- Administrazio-espedito osoa bidaltzea Nafarroako Administrazio Auzitegiari. Horretan honakoak jasoko dira: aurkatutako erabakia, horren aurreko erabakiak, langileak kontratatzeke baldintzen agiria, Basozaingoaren txostenak, Batzordeak aurkeztutako proposamenak eta aurtan kontratazio horiei buruz egin diren jakinarazpen guztiak.

Laugarrena.- Alegazio-txostena egitea. Txostena Batzordeari aurkeztuko zaio, hurrengo bilkuran onesteko; izan ere, bilkura honetarako deialdia egin zenean amaitu gabe zegoen. Txostena, administrazio-espeditoarekin eta egindako epatzeekin batera, Nafarroako Administrazio Auzitegiari igorriko zaio.

4.- IRATI BASOAREN LAN- DEIALDIARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Irati Basoako Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren berri eman da, enpresa horrek egindako lan-deialdia baliogabetzat jo duena.

Aho batez erabaki da Irati Basoako Administrazio Kontseiluak hartutako erabakia baiestea.

ACUERDO DE SESIÓN

El Pleno de la Junta, vista comunicación remitida por el Tribunal Administrativo de Navarra, sobre interposición de Recurso de Alzada número 21-0030, por D^a S. Iriarte Esevenri, contra acuerdo de sesión de esta Junta de fecha 20 de enero de 2021, acuerda:

Primero.- Darse por notificada de la interposición del recurso mencionado, relativo a revocación de acuerdo sobre contratación del Guarderío.

Segundo.- Dar traslado de la interposición del recurso a todos los trabajadores del servicio de Guarderío e Información, emplazándoles para que, en el plazo de diez días hábiles, puedan comparecer ante el Tribunal Administrativo de Navarra, en el recurso indicado, si desean oponerse a dichas pretensiones.

Tercero.- Remitir al Tribunal Administrativo de Navarra el expediente administrativo completo, que incluirá el acuerdo impugnado, los acuerdos precedentes al mismo, condicionado que sirvió de base para la contratación del personal, los informes del Guarderío, propuestas presentadas por la Junta y cuantas comunicaciones sobre estas contrataciones se han realizado en el presente año.

Cuarto.- Elaborar un escrito de informe-alegaciones que se presentará al Pleno de la Junta para su aprobación en la próxima sesión, dado que a la fecha de convocatoria de la presente no ha podido ser finalizado, y que se remitirá con el expediente administrativo y los



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Halaber, Batzordeak erabaki du baieztapen hori S. Iriarteri jakinaraztea, alegazio-jartzaile izan baita.

5.- TOKI-ADMINISTRATIOARI ESKATUTAKO TXOSTEN JURIDIKOAREN BERRI EMATEA, IRATI BASOARI BURUZKOA

Toki Administrazioari eskatutako txosten juridikoaren berri eman da, Irati Basoari lan jakin batzuk enkargatzeari buruzkoa. Txostenaren ondorioak honako hauek dira:

"Lehenengoa.- Irati Basoa S.L. sozietateak bere Estatutuen 3. artikuluan jasotako xedea baino ezin du garatu, hau da, Iratiko bisitarietzako 'Iratiko Etxeak' izeneko Harrera Gunea kudeatzea, ibarreko naturaguneak kudeatzeko eta turismoa sustatzeko edozein instalazio-mota kudeatzea, hala nola Abodiko Ipar Eski Zentroa; eta bioenergia, biomasa eta deribatuak ekoiztea, saltzea, erostea eta merkaturatzea". Zerbitzu berriak hartzeko, TAOLen 85. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira, estatutuak aldatzeari kalterik egin gabe.

Bigarrena.- Irati Basoa, S.L. ren xede sozialaren barruan dauden lanen enkarguak bete egin behar ditu Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8. artikuluan ezarritako baldintzak. Sozietatearen Estatutuetan eta horretarako egindako berariazko adierazpen batean ez da jasotzen Zaraitzuko Batzorde

emplazamientos realizados, al Tribunal Administrativo de Navarra.

4.- ALEGACIONES A LA CONVOCATORIA DE EMPLEO DE IRATI BASOA

Se informa a la Junta de la decisión tomada por el Consejo de Administración de Irati Basoa, de declarar nula la convocatoria de empleo publicada por dicha empresa.

Se acuerda por unanimidad la ratificación por parte de la Junta en la decisión tomada por el Consejo de Administración de Irati Basoa.

Se acuerda comunicar por parte de la Junta dicha ratificación a S. Iriarte, quien ha presentado las alegaciones.

5.- DAR A CONOCER INFORME JURÍDICO SOLICITADO A ADMINISTRACIÓN LOCAL SOBRE IRATI BASOA

Se da a conocer el informe jurídico solicitado a Administración Local sobre la posibilidad de encargar la realización de determinados trabajos a Irati Basoa. Las conclusiones del informe son las siguientes:

"Primera.- La Sociedad Irati Basoa, S.L. solo puede desarrollar el objeto contenido en el artículo 3 de sus Estatutos, esto es, 'la gestión del Centro de Acogida de visitantes de la Selva de Irati, denominado 'Casas de Irati'; la gestión de cualquier tipo de instalaciones que sirvan para la promoción turística y gestión del espacio natural del Valle como puede ser la



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Nagusiaren erakunde instrumentala edo 'bitarteko propio' denik; beraz, lan horiek kontratu-araudiari jarraitu behar diote, ez baitaude haren aplikazio-eremutik kanpo. "

Txostenaren edukia ikusita, Batzordeburuak Estatutuen aldaketa prestatzen hastea proposatu du, Irati Basoak malgutasun handiagoa izan dezan eta, horrela, Batzordeak agindutako lan jakin batzuk egin ahal izan ditzan, dagoeneko egiten diren lanen osagarri gisa. Halaber, hitzarmen bat prestatzen hastea proposatu du, zenbait gai zehatz adosteko, hala nola alokairuaren zenbatekoa, Batzordeari kargatuko zaizkion gastuak eta abar. Era berean, errentagarritasuna handitzeko ahalegina egin behar dela aipatu du, Batzordeari komeni zaizkio aldaketak eginez, betiere legezko bideen barruan.

Aho batez onetsi da Irati Basoaren estatutuak aldatzeko zirriborroa egiten hastea.

6.- IRATIKO BASOZAINGOA

Batzordeburuak Iratiko basozainei igorri nahi dien idatzizko proposamenaren berri eman du:

"Batzordearen eta langile-taldearen artean lan-gatazka dago gaur egun, eta zenbait demanda judizial aurkeztu dira. Hori dela eta, Batzordeburuak proposamen hau aurkeztu nahi du, aztertzeko, eztabaidatzeko eta, ondoren,

gestión del Centro de Esquí Nórdico Abodi; y la producción, compra, venta y comercialización de material bioenergética, biomasa y derivados". La asunción de nuevos servicios requiere el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 85 de la LBRL, sin perjuicio de la consiguiente modificación de Estatutos.

Segunda.- El encargo de trabajos que estén dentro del objeto social de Irati Basoa, S.L. debe cumplir los requisitos establecidos en el artículo 8 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos. No consta ni en los Estatutos de la sociedad ni en una declaración expresa al efecto la consideración como ente instrumental o 'medio propio' de la Junta General del Valle de Salazar, por lo que los mismos deben seguir la normativa contractual al no encontrarse excluidos de su ámbito de aplicación."

Visto el contenido del informe, el Sr. Presidente propone comenzar a preparar una modificación de los Estatutos para que Irati Basoa cuente con más flexibilidad y así poder realizar determinados trabajos que le encargue la Junta, como complementarios a las labores que ya realizan. Propone empezar a preparar un convenio donde se acuerden algunas cuestiones concretas como la cuantía del alquiler, gastos que se cargarán a la Junta etcétera. Asimismo, menciona que es necesario hacer un esfuerzo para aumentar la rentabilidad, realizando cambios convenientes para la Junta, siempre dentro de los cauces legales.



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

bozkatzeko.

Basozaingoak aurkeztutako demandak ebatzi bitartean, honakoa proposatu nahi dut: kontratazioa egitea datorren astetik azaroaren 30era arte.

Egungo egutegia indarrean egonen litzateke, eta egutegi horretan jasota ez dauden egunekin osatuko litzateke, kontrataziorako aipatutako daten artean; beraz, egun horietan baso-langileen ordutegi bera izanen litzateke. Lanak langile guztiek eta Batzordeak berak eskatuta erabakiko dira, eta Batzordeburuak koordinatuko ditu.

Basozaingoak proposamena onartu behar du, zehaztasunak geroko utzita"

Batzordeburuaren iritziz, proposamen horrek tentsioa baretu eta jarrerak hurbildu litzake.

Sagardoik harrituta eta haserre dagoela adierazi du batzordekideek ez dituztelako jaso Batzordearen eta Basozaingoaren arteko azken jakinarazpenak (maiatzaren 12tik 31ra artekoak). Batzordeburuaren proposamenari dagokionez, azaldu du ados dagoela orain hasita kontratatzearekin, baina bere ohiko zeregin eta ordutegiekin jarraituz. Bere desadostasuna agertu du gaia bideratzeko moduarekin, batzordekideek guztia berri izan beharko luketela iritzita. Negoziazioari dagokionez, negoziatzeko prest dagoela azaldu du, baina gogoratu du bilkura batean berak idatzitako negoziazio-puntuak baztertu egin zirela.

Batzordeburuak erantzun du

Se aprueba por unanimidad comenzar a elaborar un borrador para la modificación de los Estatutos de Irati Basoa.

6.- TEMA TRABAJADORES GUARDERÍA TURÍSTICO

El Sr. Presidente pone en conocimiento de los Junteros la siguiente propuesta escrita que quiere hacer llegar al equipo del Guarderío Turístico:

“Dada la actual situación de conflicto laboral entre la Junta y el Equipo de Guarderío turístico, en la que hay planteadas varias demandas judiciales, esta Presidencia, quiere exponer a la valoración, análisis, debate y posterior votación la siguiente propuesta.

A la espera de las diferentes resoluciones de las demandas planteadas por el Guarderío, propongo hacer una contratación desde la semana próxima hasta el 30 de Noviembre.

El actual calendario se mantendría vigente y se vería complementado con los días que no estén contemplados en el mismo entre las fechas citadas de contratación, de forma que esos días el horario sería el mismo que los forestales, y las labores, las que se vayan decidiendo a demanda de todos los trabajadores y trabajadoras y de la propia Junta. Éstas serán coordinadas por el Presidente.

Esta propuesta debe ser aceptada por el Guarderío, dejando los flecos abiertos para concretar.”

Explica el Sr. Presidente que esta



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Batzordean hitz egin eta adostu den guztia bidali zaiola Basozaingolari. Azaldu du ez zuela premiarik ikusi Langileen ordezkariarekin izandako azken komunikazioak bidaltzeko, baina jadanik hori eginga dagoela. Negoziazioei dagokienez, adierazi du, bere ustez, Batzordea dela negoziatzeko interesa duen bakarra, egindako proposamenek frogatzen duten bezala; aldiz, Basozaingoak proposamen guztiei ezezkoa eman die, mahai gainean ezer jarri gabe.

Senberoizen iritziz "Errekurritu den bilkurako erabakia baliogabetzean, zigor bat ezarri nahi izan zaio [Basozaingolari] Batzordearen proposamenak ez onartzeagatik". Aktan jasota geratzea nahi du Batzordeburuaren proposamenaren aurka bozkatuko duela langileekin negoziatu ez delako, eta adierazi du egoera ongi amaitzeko modu bakarra langileekin benetako negoziazioa hastea dela.

Batzordeburuak negoziazioei buruz emandako argudioak berretsi ditu, hau da, beti Batzordeak gehiengoz hartutako erabakiei jarraituz jardun duela. Gaineratu du Batzordekideek Batzordearen interesak defendatu behar dituztela, erakundetik kanpo izan ditzaketan interes indibidualak alde batera utzita. Azkenik, adierazi du aho batez onetsi ezean bere proposamena erretiratuko duela.

Gaia eztabaidatu ondoren, Batzordeburuak bere proposamena erretiratu du. Senberoizek aktan jasota

propuesta podría relajar la tensión y acercar posturas entre la Junta y el Guarderío.

La Sra. Sagardoi toma la palabra para hacer constar que los Junteros no han recibido las últimas comunicaciones entre la Junta y el Guarderío (con fecha de 12 de mayo) hasta el día 31 del mismo mes; manifiesta su sorpresa y su enfado ante no estar al tanto de las comunicaciones. Sobre la propuesta del Sr. Presidente, explica que está de acuerdo con contratarlos desde ahora pero con sus labores y horarios habituales. Manifiesta no estar de acuerdo con la forma en la que se está llevando el asunto, dice que tendrían que estar al corriente de todo. En cuanto a la negociación, explica que ella sigue dispuesta a negociar, pero que en una reunión de la Junta se rechazaron los puntos de negociación redactados por ella.

Toma la palabra el Sr. Presidente para responder que todo lo que se ha mandado al Guarderío ha sido porque se ha hablado y acordado en esta Junta desde el principio. Explica que no vio urgencia en mandar las últimas comunicaciones con la Delegada de Personal a los Junteros y que a día de hoy ya están enviadas. En cuanto a las negociaciones, afirma que en su opinión la Junta es la única interesada en negociar, y está demostrado con las diferentes propuestas ofertadas al Guarderío, mientras que el Guarderío no ha puesto nada encima de la mesa para negociar, y ha respondido que no a todas las propuestas.

El Sr. Senberoiz explica que



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

geratzea nahi du proposamena erretiratu dela, eta adierazi du ez duela ulertzen zergatik proposamen batzuk aurrera eramán diren gehiengo osoz eta hau, aldiz, erretiratu den.

Batzordeburuak dio adostasunik ezean nahiago duela urrats gehiagorik ez eman, eta egoera epaileen esku uztea proposatu du, S. Iriartek Langileen Ordezkarí gisa aurkeztutako eskaera guztiak ebazteko.

Senberoiak proposatu du Sagardoik, apirilaren 23an langileekin egindako bileraren ondoren, apirilaren 25eko bilkuran aurkeztu zituen negoziazio-puntuetara itzultzea. Adierazi du ez duela arazorik astelehenean bertan langileen ordezkariarekin biltzeko eta Sagardoiren negoziazio-puntuekin negoziatzen hasi eta berehala lanean hasatea proposatzeko, urtea behar bezala betetzen saiatzeko. Ez du arazorik ikusten gaia Langileen Batzordetik bideratzeko, eta bere burua aurkeztu du gaia lantzeko.

Senberoiak proposamena bozkatu da:

Alde: Senberoiak, Sagardoi eta Ayerra.

Aurka: Mascaray, Sarries eta Celay.

Proposamena atzera bota da Batzordeburuaren kalitateko botoarekin.

Celayk proposamen gehiago ez egiteko eskatu du. Adierazi du dagoeneko badagoela negoziatzeko

“cuando se revoca el acuerdo de sesión que ha sido recurrido, lo que se hace es un castigo [al Guarderío] por no haber aceptado las propuestas de la Junta”. Quiere que conste en acta que vota en contra de la propuesta del Sr. Presidente porque no ha sido negociada con los trabajadores, afirma que la única forma de que la situación acabe bien es empezando una verdadera negociación con los trabajadores.

El Sr. Presidente se ratifica en sus argumentos sobre las negociaciones, siempre de acuerdo a las decisiones tomadas por mayoría en esta Junta. Añade que los Junteros se deben a los intereses de la Junta, independientemente de los intereses individuales que cada uno pueda tener fuera de ésta. Afirma que si no hay un acuerdo unánime retirará su propuesta.

Debatido el tema de las negociaciones entre el Guarderío y la Junta, el Sr. Presidente retira su propuesta. El Sr. Senberoiak quiere que conste en acta la retirada de la propuesta, explica que no entiende por qué otras propuestas se han llevado a cabo sin mayoría absoluta y esta se ha retirado.

El Sr. Presidente es partidario de no dar más pasos por el momento si no existe un consenso, propone dejar la situación en manos de los Jueces, conforme resuelvan todas las demandas presentadas por S. Iriarte en calidad de Delegada de Personal.

El Sr. Senberoiak propone volver a los puntos de negociación que presentó la Sra. Sagardoi en la reunión del 25/04/2021, tras la reunión del día 23 con los trabajadores. Manifiesta que no



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

moduko testu bat eta ez dela negoziatu.

7.- ALKATETZEN ITUNARI ATXIKITZEA, EGOKIA BADA

"Nafarroako toki-erakundeen klimaren eta energiaren aldeko konpromisoak" ekimenaren berri eman da, Nafarroako Gobernuak sustatua. Horren arabera *"Tokiko gobernuak erantzunkide dira berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuekin, eta klima-aldaketa eta pobrezia energetikoa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi komuna hartzen dute"*.

Epea amaitu egin da; beraz, jarduerarik egin nahi izanez gero, ez litzateke finantzatzeko, eta finantzaketa dirulaguntzaren baten bidez bilatu beharko litzateke.

Alkatetzen Itunari atxikitzeko bozketa egin da:

Alde: Senberoiz eta Sagardoi

Aurka: Celay

Abstentzia: Batzordeburua, Sarries eta Ayerra

Atxikimendua onetsi da.

8.- ERRETIRATUEN ELKARTEARENTZAKO DIRULAGUNTZA

Batzordeak berretsi du dirulaguntzak justifikatu egin behar direla. Oharra bidaliko zaio erretiratuen elkarteari, gogorarazteko gastuen justifikazio egokia aurkeztu behar dutela eta ezin direla otorduen edo antzekoen

tiene problema en reunirse con la Delegada de Personal el lunes para proponer empezar con los puntos de negociación elaborados por la Sra. Sagardoi y proponerles que empiecen a trabajar a partir de ahora, para intentar cubrir de forma adecuada el año 2021. No tiene problema en que se pueda llevar esto a través de la Comisión de Personal, se propone para adherirse a la Comisión y llevarlo él.

Se procede a la votación de la propuesta del Sr. Senberoiz.

Votan a favor los Sr./Sras.: Senberoiz, Sagardoi y Ayerra.

Votan en contra los Srs.: Mascaray, Sarries y Celay.

Se rechaza la propuesta por voto de calidad del Sr. Presidente.

El Sr. Celay toma la palabra para proponer que no se realicen más propuestas. Afirma que ya existe un texto sobre el que negociar y que no se ha negociado.

7.- ADHESIÓN, SI PROCEDE, AL PACTO DE ALCALDÍAS

Se da a conocer la iniciativa "Compromisos por el clima y la energía de las Entidades Locales de Navarra", una iniciativa europea promovida por el Gobierno de Navarra por la que *"los gobiernos locales se corresponsabilizan con los objetivos de reducción de los gases de efecto invernadero y adoptan un enfoque común para la mitigación y adaptación al cambio climático, así*



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

gastuak sartu, eta ongi justifikatuta ez badago, dirua itzuli beharko dutela; hori dena datorren urtean ere kontuan har dezaten.

9.- BATZORDEAK **KONTRATATUTAKO** **AHOLKULARITZA JURIDIKOARI** **BURUZKO BALORAZIOA**

Batzordeak kontratatutako aholkularitza juridikoari buruzko balorazioak egin dira. Erabaki da egungo abokatuarekin jarraitzea Basozaingoaren auzia amaitu arte, baina hurrengoetarako beste aukera batzuk aztertuko dira, *Biderka* esaterako.

10.- BATZORDEAK ETA **BILERAK**

Batzordeetako arduradunak berrikusi dira. Batzordeen ohiko funtzionamenduarekin jarraitzea erabaki da: Batzorde bakoitzak arduradun bat izanen du, eta Batzordeburuarekin batera bileretarako deialdiak egin eta aktak idatziko ditu. Arduradun batek bilera batera bertaratzerik ez duenean, ordeko bat bilatu beharko du. Bileretara batzordekide guztiak joan ahalko dira.

Batzordeetako arduradun hauek adostu dira:

- Langileen Batzordea: Mascaray
- Abeltzaintza Batzordea: Sarries (Celay, ordezkoa)
- Turismo Batzordea: Senberoiz
- Interreg batzordea: Mascaray

como a la pobreza energética”.

El plazo se encuentra cerrado, por lo que las actuaciones que se pudieran realizar no estarían financiadas, teniendo que buscar financiación mediante alguna subvención.

Se procede a votar sobre la adhesión al Pacto de Alcaldías.

Votan a favor de la adhesión el Sr. Senberoiz y la Sra. Sagardoi.

Vota en contra de la adhesión el Sr. Celay.

Se abstienen el Sr. Presidente y el Sr. Sarries y la Sra. Ayerra.

Se aprueba la adhesión al Pacto.

8.- TEMA SUBVENCIÓN A LA **ASOCIACIÓN DE JUBILADOS**

Se ratifica que las subvenciones se tienen que justificar. Se preparará una nota aclaratoria a la asociación de jubilados para recordarles que tienen que presentar una justificación adecuada de los gastos, no pueden justificarse gastos como comidas o similares. Si no está bien justificado tendrán que devolver el dinero y para que lo tengan en cuenta el año que viene.

9.- VALORACIÓN **ASESORAMIENTO JURÍDICO** **CONTRATADO POR LA JUNTA**

Se intercambian valoraciones en torno al asesoramiento jurídico contratado por la Junta. Se acuerda continuar con el abogado actual para finalizar el proceso con el Guarderío,



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcaroz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

- Euskara Batzordea: Sagardoi
- Ekitaldien, jaien eta abarren batzordea: Ayerra
- Erretiratuen elkartearen eta Gizarte Zerbitzuen Batzordea: Mascaray (Senberoi izan bileretara bertaratuko da)
- Bardeetako Batzordea: Sarries
- Cedernako Batzordea: Mascaray
- Basogintza Batzordea: Celay

11.- DIRULAGUNTZAK

Argitaratu diren dirulaguntza deialdien berri eman da. Erabaki da honako proiektu hauek aurkeztea dagozkien deialdietara: Irati-Abodi Mendi Guneko terrazako estalkiaren obra, Erremendia biziberritzeko eta dinamizatzeko proiektua, Urmuga kontzertua eta Irati Irratia.

12. JASOTAKO IDAZKIAK

-ABEREEN OSASUN BABESERAKO ELKARTEA. Horren bidez Zaraitzuko Batzorde Nagusiari eskatu dio 2022tik aurrera herri-larreetan soilik IBRren aurka txertatutako behi-aziendari sartzeko.

Erabaki da 2022tik aurrera abeltzainek, ohiko dokumentazioaz gain, ADSGk emandako ziurtagiria aurkeztu behar izatea, behi-azienda IBRren aurka txertatu dutela egiaztatzen duena.

13.- GALDERAK ETA

pero se acuerda valorar diferentes opciones como Biderka para futuras ocasiones.

10.- COMISIONES Y REUNIONES

Se procede a la revisión de los responsables de las diferentes Comisiones de la Junta. Siguiendo al Sr. Presidente, se acuerda seguir con el funcionamiento habitual de las Comisiones: cada Comisión tendrá un responsable que, junto con el Presidente, convoque las reuniones de las comisiones y redacte las respectivas actas. Cuando un responsable de una Comisión no pueda acudir a una reunión buscará a un suplente. Todos los Junteros pueden acudir a dichas reuniones. Se acuerdan los siguientes responsables de Comisiones:

- Comisión de Personal: Sr. Mascaray
- Comisión de Ganadería: Sr. Sarries (Sr. Celay suplente)
- Comisión de Turismo: Sr. Senberoi izan
- Comisión de Interreg: Sr. Mascaray
- Comisión de Euskera: Sra. Sagardoi
- Comisión de Eventos, fiestas etc.: Sra. Ayerra
- Comisión de Asociación de Jubilados y Servicios Sociales: Sr. Mascaray (Sr. Senberoi izan como asistente a las reuniones)
- Comisión de Bardenas: Sr. Sarries
- Comisión de Cederna: Sr. Mascaray
- Comisión Forestal: Sr. Celay

11.- SUBVENCIONES



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

ESKAERAK

Batzordeburuak Ezkarozeko Udalak egindako eskaera baten berri eman du. Horren bidez eskatu du Ezkarozeko errota birgaitzeko proiektuari laguntza eta babes emateko. Gaia aztertu ondoren, aho batez erabaki da errota birgaitzeko proiektuaren ekimena babestea.

Sarrierek Fuentes Dutor Fundazioak (Fuentes Dutor familiaren ondarearekin sortutako nafar fundazioak) bidalitako mezu baten berri eman du. Horren bidez jakinarazi du 10.000 euroko dohaintza eginen duela Elurretako Ama Birjinaren basiliza birgaitzeko. Horrekin batera, Batzordeburua gonbidatu du ekainaren 11n Iruñeko Entzierroaren monumentuaren aurrean eginen den ekitaldira. Ekitaldi horretan, jasotako dohaintzen berri emanen da eta eskerrona adieraziko zaie modu batera edo bestera basiliza birgaitzeko lanean ari diren guztiei.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 21:00etan Batzordeburuak bilkura amaitu du, eta akta hau egin da, Batzordekide guztiek sinatua.

Ezkarozen, 2021eko ekainaren 15ean

Se informa de las diferentes subvenciones que están abiertas y se acuerda presentar los siguientes proyectos a las subvenciones donde tengan cabida: la obra de la cubierta de la terraza del Centro de Montaña Irati-Abodi Mendigunea, el Proyecto de Revitalización y dinamización de Remendía, el concierto de Urmuga e Irati Irratia.

12. ESCRITOS RECIBIDOS

-SOLICITUD DE LA AGRUPACIÓN DE DEFENSA SANITARIA GANADERA (A.D.S.G.). Se solicita a la Junta del Valle de Salazar que, a partir del año 2022, solamente puedan acceder a los pastos comunales del Valle animales de la especie bovina previamente vacunados con vacuna marcada frente a IBR.

Se acuerda que a partir de 2022 los ganaderos, además de presentar la documentación habitual, presenten en la Junta el certificado emitido por la ADSG de haber vacunado frente al IBR al ganado bovino.

13.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Toma la palabra el Sr. Presidente para comunicar una solicitud recibida por parte del Ayuntamiento de Ezcároz, pidiendo colaboración y apoyo para su proyecto de rehabilitación del molino de Ezcároz. Presentado el tema, se acuerda por unanimidad apoyar la iniciativa del proyecto de rehabilitación del molino.

El Sr. Sarries toma la palabra para informar de un correo recibido donde se da a conocer que la Fundación Fuentes



JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDEA NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze
Tfn. 948-890055
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Dutor (Fundación navarra creada con el patrimonio de los Fuentes Dutor) va a hacer un donativo de 10.000€ para rehabilitar la Ermita de la Virgen de las Nieves. En dicho correo se invita al Sr. Presidente de la Junta para que acuda el día 11 de junio a un acto frente al Monumento del Encierro en Pamplona, donde se informará de las donaciones recibidas y se agradecerá a todos los que, de una manera u otra, están haciendo lo posible para rehabilitar la ermita.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, se levantó la sesión por el Sr. Presidente, a las veintiuna horas, de la que se extiende la presente acta, que es suscrita por los Sres. asistentes conmigo la Secretaria

En Ezcároz a 15 de junio de 2021.